ERRENTERIAKO UDAL ALDIZKARIA | 31. zenbakia | 2024ko urria

# errenteria
## HERRI BIZIA

## SORTZEKO ESPAZIO MODERNO ETA LASAIA



# Agustinak Zentroa, motor para la economía creadora


Agustinak Zentroa zabalik 3. ORR. >>

Atlantikaldia 6. ORR. >>

Herri Bizia 8. ORR. >>

Familia Laguna egitasmoa 12. ORR. >>

Errenteria Bizia 15. ORR. >>




# Guretzako.
# Más cerca.

ERRENTERIA
UDALA

**ZU! arreta bulego berria iritsi da goiko auzoetara.**

La nueva oficina ZU! llega a los barrios de la zona alta.

**HELBIDEA** / DIRECCIÓN
**Aldakonea, 2**

**ORDUTEGIA** / HORARIO
**Astelehenetik ostiralera**
De lunes a viernes
**08:00 - 14:00**

**ZU! Gertuago.**

**BERAUN · GALTZARABORDA · KAPUTXINOAK · ALABERGA · IGANTZI**

**943 449 600 / 010**
zu@errenteria.eus








# Agustinetan ere, sorkuntzari ateak zabal-zabalik

***Sei hilabete bete dira Agustinak Zentroa zabaldu zutenetik. Herriko eta inguruko herrietako zortzi sortzailek kabi bat aurkitu dute bertan.***

Sorkuntza lau haizetara eta nahi bezala zabaltzeko beste espazio eder, moderno eta lasaia du herriak joan den apiriletik. Askotariko sortzaileek egunerokoan lan egiteko txoko bat eskuratu dute Agustinak Zentroan, baina hortik harago doa eraikinaren esentzia. Orain dela sei hilabete ereindako haziak loratzen hasi dira, eraikinaren barne zein kanpoaldean. Ekainaren 19an inauguratu zuten ofizialki.

Udalaren, Oarsoaldea Garapen Agentziaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzari esker zabaldu ditu ateak zentroak. Izan ere, kultura «eskualdearen motore ekonomikoaren giltzarri» da hiru erakundeentzako. Horregatik indarrak batu eta 2,6 milioi euroko proiektua gauzatu dute elkarlanean. Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren eta Oarsoaldeako 2025 Plan Estrategikoaren barruan irudikatu dute egitasmoa.

Oarsoaldea Garapen Agentziako teknikari eta Agustinak Zentroaren zuzendari Esti Susperregi Zabalok aipatu du «kultura eta sormen industrien esparruan proiektu ekonomikoak sustatzeko» zentroa dela auzoan zabaldu dutena, eta zeregin horretan aritu direla hasieratik. Zentroaren arduradun da hein berean Susperregi. Haren arabera, «kultur eta sormen industriei balioa emateko asmoz» jaio zen zentroa apirilean. «Horretarako, sektorea saretu, sektorean jarduten ari direnen eraginkortasun ekonomikoa indartu, eta proiektu berriak sortzeko ekintzailetzarako ingurune egokia sortu dugu», esan du.

Sormen proiektu guztiek dute txoko bat Agustinak Zentroan. Moda,





argazkigintza, bideo-jokoak, multimedia, interaktibitea, informazioaren eta komunikazioaren teknologia... Asko eta askotarikoak dira gaur egun zentroan aritzen diren proiektuak.

## Zortzi proiektu

Hogei lanposturako aurreikusitako eremua du zentroak, eta gaur egun zortzi proiektu ari dira bertan lanean. Lau ekintzaile lehen pisuan daude, ehungintza eta bitxigintzara begirako aretoan; gainerako laurek bigarren solairuan dute txoko bana, publizitatean, 3Dn eta marketineko aretoan.

Teknikariak azaldu du kultura eta sormen sektoreko lana beren bizibide bihurtzeko helburua duten pertsona edo taldeak bertan aritu daitezkeela, eta era berean, euren jarduera hasi berri duten eta garatzen joateko baliabideak behar dituzten pertsona eta enpresek ere tokia dutela. Dagoeneko finkatuta, baina euren egoera hobetu nahi duten proiektuei ere ateak zabalik da zentroa. Sortzaileek ez dute zertan eskualdekoak izan behar.

Jarduera ekonomiko baten asmoa duen kultura eta sormen proiektu bat duten guztiek haiekin harremanetan jartzera gonbidatu ditu Susperregik. https://agustinakzentroa.eus/ webgunean egin daiteke eskaera.

Eskaera egin ondoren, zentroko arduradunek proiektuen egoera aztertuko dute, teknikariaren arabera, «arreta pertsonalizatuan eta hurbilean oinarritutako ibilbide orria eta aukeren proposamenak eskaini». Ildo horretan aholkularitza ere ematen diete, «ideiak bideragarri bihurtzen lagunduz».

Hasi berri diren egitasmoei beharrezkoak dituzten lan espazioak eta akonpainamendua eskaintzen diete, baita mentoretza zerbitzu bat ere. Lan egiteko espazioak edo finantzaketa bilatzen laguntzen diete, eta sektorean finkatuta daudenekin haien egoeraren diagnostikoak egiten dituzte, «hazteko eta egonkortzeko helburuak eta jarduerak zehaztuz», Susperregiren arabera. Bestalde, profesionalizaziorako prestakuntza programak, topaketak, ekitaldiak eta dinamizazio jarduerak ere eskaintzen dizkiete.

Zentroaren helburu nagusietako bat «sektorea saretzea» dela gaineratu du teknikariak, eta horretarako haien artean konektatzen dituzte sortzaileak «Tokiko hizkuntza eta kulturarekiko» konpromisoa ere badu zentroak, eta horregatik zerbitzu guztiak euskaraz jaso daitezke.

Finean, espazio bat baino gehiago izan nahi zentroak. Aizpea Otaegi alkatearen arabera «ekosistema





> *«El centro tiene capacidad para generar veinte puestos de trabajo. En la actualidad son ocho los proyectos que acoge»*

oso baten kabitegi» bat izan dadila nahi dute: «Kultura eta sormen industria sektore estrategikoa da garapen sozioekonomikoaren ikuspuntutik ere Errenteriarentzat eta Oarsoaldearentzat. Sektorean espezializatutako espazio horrekin, horren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, baina espazioan irabaztean gain, anbizioan ere jauzi bat eman nahi dugu, sektorearentzat eraginkorragoak eta topaleku bat izan nahian, sinergia eta lankidetza gehiago sortzeko, sektorea bera balorean jartzeko eta Gipuzkoarako begirada zabalduz".

Informazio gehiago jasotzeko 943 49 41 29 telefono zenbakira hots egin daiteke. Bestela, zuzenean eraikinera jo dezakete interesdunek (Agustinak etorbidea, 4).

## Kabi bat

Agustinak Zentroan hasi berria da Iratxe Goñi Aranzabal donostiarra. Torrekuatik Agustinak auzoko zentro berritzailera egin berri du jauzia. Denbora tarte batez freelance gisa aritutakoa da, eta aitortu du Agustinetan bere sorkuntzari hegalak emateko aukera aurkitu duela. «Kabi bat izaten ari da niretzako, nire proiektuari bide emateko», esan du. Zentroan bere jarduerako beharrezko dituen baliabideekin egin duela topo nabarmendu du, gustura aritzen dela suma dakioke: «Sortzaileen mundua zaila da, askok etxetik egin behar izan dugu lan. Lokal bat alokatzea oso garestia da. Askorentzat erokeria da hori. Hemen behar nuen hori aurkitu dut, oso gustura nago».

Diseinatzaile industriala da Goñi. 26 urterekin, bere lehen produktua kaleratzear du. Haurrentzako produktu inklusiboen diseinuan aritzen da, mutil zein neskek erabil ditzaketenak, «ezaugarri fisikoak, psikologikoak, kognitiboak, emozionalak edo arrazakoak kontuan hartu gabe». Ildo horretan, askotariko proiektuetan aritu da azken urteetan, horien artean aurki argia ikusiko duen jostailuarena: «Ikusmen Urria dutenen Gipuzkoako Elkarteak (AGI) tailer batetara gonbidatu ninduen, eta ikaragarria izan zen. Haurrekin jolasteko erabiltzen zuten materiala oso zaharkituta zegoen. Gehienak mahai-jokoak ziren. Hutsune bat zegoela ikusi nuen, behar bat». Hutsune hori betetzera eta jostailu inklusiboen katalogoa handitzera etorri da Goñi, besteak beste, bere azken sorkuntzarekin, Yelo markaren aterkipean kaleratuko duena. Haren lanak ikusteko yelobjects.com webgunera jo daiteke.



### Abierto al barrio

Las semillas plantadas hace sei meses con la apertura del centro, también han florecido en el exterior de éste. El centro cuenta con un espectacular y hermoso jardín. Ha sido diseñado por el paisajista Iñigo Segurola. El Ayuntamiento y el propio centro invitan a los/as errenteriarras a disfrutar de «este magnífico espacio verde». Se trata de ofrecer a la cidadanía de Agustinas una «zona de relax» con jardín, donde las personas que acudan puedan descansar y disfrutar de la naturaleza en el entorno urbano», según fuentes del centro. «Este espacio está pensado para ser un refugio tranquilo, ofreciendo un ambiente ideal para disfrutar del entorno natural», añaden.

Se podrá visitar de 9:00 a 21:00 horas de lunes a domingo. Cualquier actividad que vaya más allá de la mera visita deberá ser solicitada y comunicada a los gestores del edificio.






# Atlantikaldia 2024









*infórmate del día a día en*
***herriko egunerokotasunaren berri izateko***

»

**HERRI BIZIA**
herribizia.errenteria.eus




«

## *Bonuak etxe guztietan*

*Los bonos Bizi Errenteria se pueden utilizar hasta el 11 de diciembre.*

»

## *Un nuevo aparcamiento de rotación*

*Pontikako aparkaleku berria zabalik da.*





«

## *Hurbilago*

*El edificio Aldakoenea de Beraun, abierto y al servicio de la ciudadanía.*



Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 31. zenbakia

»

## *Barandiaran, un nuevo pulmón en el municipio*

*Hasi dira Barandiaran parkea egiteko lanak.*







«

## *Inklusiorako lanean*

*Oarsolan, Centro de innovación y para el empleo de la comarca, en marcha.*

»

## *Solidaridad, en directo*

*Juneren Hegoak elkarteak Erronka Eguna egin du urriaren 12an.*





## Etxebizitza eskubidean, aurrera urratsa

El Gobierno Vasco declara Errenteria como zona tensionada en vivienda.





## Altzate toma forma

Auzo berriak lehen biztanleak jaso ditu jada.

## Etorkizuna elkarrekin pentsatzen

El Curso de Verano, lugar para pensar en el municipio deseable del futuro.



Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 31. zenbakia

# //udal taldeen mezuak//

### ELLAS ELLOS

[PP]

*El progresismo en bloque ha adoptado la insignia de la igualdad al referirse a "ellos" o "ellas", creyendo que así son más inclusivos. Desde el grupo municipal del Partido Popular de Errenteria, respetamos la individualidad de todas las personas, sin discriminación alguna. Por eso proponemos eliminar "ellos y ellas", pues excluye a personas no binarias. Solo ahora, al dirigir su discurso al género masculino o femenino, se dan cuenta de la discriminación hacia quienes no encajan en esos términos. Nuestro grupo trabajará siempre en favor de las libertades y derechos individuales.*

### VIVIR, NO SOBREVIVIR: LA VIVIENDA ES UN DERECHO

[Elkarrekin Errenteria]

*Declarar Errenteria como zona tensionada marca un hito en la lucha por una vivienda digna y accesible. Entendemos la vivienda como un derecho fundamental, no como un negocio especulativo ni un lujo reservado a unos pocos privilegiados.*

*Gracias a la Ley de Vivienda impulsada por Unidas Podemos en el Gobierno, es posible poner un límite a los precios en zonas de especulación para frenar la escalada desorbitada de los alquileres en nuestro municipio. Frente a los mercados voraces, las instituciones públicas tenemos la obligación de actuar y proteger a la ciudadanía. Y eso es precisamente lo que hemos hecho.*

*Además, hemos puesto en marcha un gran plan de vivienda pública. Garantizar el derecho a una vivienda asequible es nuestra prioridad y no cesaremos hasta lograrlo. Etxebizitza eskubidea da.*

### AZAROAK 25

[EAJ-PNV]

*Azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko eguna da. Oraindik ere emakume asko dira, adin tarte guztietakoak, indarkeria jasaten dutenak gure herrian. Hezkuntza ezinbesteko tresna dugu, gizarte bezala indarkeriari aurre egiteko. Modu berean sentsibilizazio kanpainek ere bere bizko garrantzia dute, baina badira erakundeek eskaintzen dituzten hainbat errekurtso eraso sexista jasan duten pertsonei zuzendutakoak. Denok gara kontziente salaketa jartzea garrantzitsua dela, eta askotan errepikatzen dugu. Hala ere, biktimak behar bezala artatzea eta dituzten beharrei erantzuteko zerbitzuak eskaintzea, biktimaren ongizatea erdigunean jartzea da.*

### SUBIDA DE TASAS SIN DIÁLOGO

[PSE-EE]

*Desde el Grupo Socialista hemos votado en contra de las Ordenanzas Fiscales 2025 por la falta de transparencia y de un análisis que justifique la subida del 35 % en la tasa de residuos, aprobada sin debate y sin consultar al Consejo de Residuos. Nuestra propuesta de congelar el IBI, para aliviar la carga de nuestros vecinos, también ha sido rechazada.*

*Hemos conseguido la reducción en el aumento del impuesto de vehículos, pero insistimos en medidas como la progresividad en tarifas deportivas y la revisión de la tasa de ocupación para actividades culturales. Exigimos un debate real, análisis detallado y una política fiscal justa para Errenteria.*

### KOMUNITATE BATU BAT

[EH Bildu]

*Herrikide guztiak komunitate baten parte sentitzea funtsezkoa da herri gisa aurrera egiteko, komunitate bat izateak, gutako bakoitzaren bizitza oparoago egiteaz harago, herri gisa ditugun erronkei erantzuteko gaitasuna ematen baitigu. Horregatik dira garrantzitsuak, gure herrira iritsi berri diren familia eta herrikide guztiak komunitatearen parte izan eta senti daitezen martxan jartzen ari diren Familia Laguna gisako proiektuak. Ederra da proiektuan parte hartzen duten herriko familiek osatzen dugun komunitate anitzaren enbaxadore izateko hartzen duten konpromisoa. Eta, ezinbestekoa da, bide horretan Udala ere bidelagun izatea, baliabideak eta tresnak eskainiz, partekatzen dugun komunitatea sendotzen jarraitzeko: izan kirotik, kulturatik edota ekipamendu publikoen diseinutik bertatik. Eta, nola ez, guztiok gure bizi-proiektuak gara ditzagun oinarrizko baliabideetara sarbidea bermatuz.*

# Familias que comparten





*Familia Laguna acompaña a las familias recién llegadas a Errenteria a sentirse parte de la comunidad. Para ello es indispensable la aportación de las familias acompañantes.*

En noviembre se hará el primer encuentro del curso del programa Familia Laguna. Las relaciones promovidas a través del programa tienen como objetivo hacer que las familias recién llegadas a Errenteria se sientan bienvenidas y tenidas en cuenta, así como ofrecer facilidades a niños, niñas y personas adultas en la adaptación comunitaria y escolar. El programa ofrece un acompañamiento ante las dificultades y necesidades que puedan surgir en el camino (información, trámites, conocimiento del euskera...). En definitiva, se trata de poner en contacto a familias recién llegadas de otros países con familias locales con hijos e hijas de las mismas edades, y, de paso, fomentar las relaciones interculturales. También se pretende acercar al euskara a todas aquellas familias que lo deseen.

El programa se inició en el curso 2021-2022 en los centros de Educación Infantil y Primaria. Por lo tanto, se sumergirá en el cuarto curso. Aquel primer curso arrancó en el colegio Koldo Mitxelena Herri Ikastetxea, a petición de la asociación de padres y madres del centro, y posteriormente, vista la aportación que el programa podía hacer a la comunidad educativa y a la convivencia en el municipio, el Ayuntamiento apostó por ampliarlo a los seis centros escolares de Errenteria. Por lo tanto, todas las familias que deseen ser parte del programa, no tienen más que ponerse en contacto con las direcciones de sus respectivos centros educativos, y hacer la petición para unirse a Familia Laguna.

En estos tres cursos, el programa ha contado con la participación de más de 100 familias del municipio. Entre ellas, varias de diferentes procedencias que acaban de llegar a Errenteria, y a las escuelas, así como locales que se han mostrado dispuestas a ofrecer este acompañamiento. En total, se han contabilizado alrededor de 21 orígenes entre las familias participantes.

Al mismo tiempo, a través de las parejas de familias que se crean, se trabaja el conocimiento mutuo, las redes y la cohesión entre las familias de los barrios y centros escolares, con el objetivo de trabajar la convivencia intercultural y la pedagogía antirracista a nivel municipal.

## En parejas, y a la vez

Garazi Zarauz es una de las coordinadoras del programa. Explica que trabajan con la metodología del acompañamiento socio-educativo. Es decir, familias locales se encargan del acompañamiento de familias recién llegadas, para ello crean parejas entre las familias matriculadas en los centros educativos de Errenteria. Es un programa flexible, en el que está presente la necesidad de hacer conexiones interculturales entre ellas, buscando actividades o momentos en los que coinciden. «Para que esa relación entre familias resulte más fácil, se organizan varias actividades de grupo durante el curso. En ellas participan todas las familias del programa. Para empezar, en noviembre hacemos un primer encuentro donde conocen a la familia con la que van a compartir el programa y al resto del grupo. Después, hacemos una pequeña sesión de formación para que las familias que participan en el programa sepan qué tener en cuenta para hacer su labor».

Es importante que las familias recién llegadas también conozcan los recursos que se ofrecen en el municipio. «Nos encargamos de que las familias sepan, a nivel de ayuntamiento y superior, en qué entorno se encuentran y como acceder a los diferentes servicios de Errenteria». En ese camino, conocen varias asociaciones y agentes del municipio.

Zarauz sabe que no es fácil que las familias recién llegadas se abran a la vida de Errenteria. «Nuestro objetivo es hacerles más fácil ese proceso de inclusión, y creemos que la mejor forma es hacerlo de igual a igual. De familia a familia». Para ello, las familias de acompañamiento locales apoyan a sus pares con aquellas dudas que pueden surgir relacionadas con el funcionamiento escolar. También se encargan de facilitar el agrandar su red social. «Hay aspectos que a nosotros no nos parecen importantes, pero para las personas que todavía se están ubicando en Errenteria sí lo son», explica Zarauz.

El euskara también tiene peso específico en el programa. «Consideramos que el euskara es un elemento de inclusión. Igual no pueden apuntarse al euskaltegi, pero siempre procuramos que conozcan palabras, ofrecerles recursos para el aprendizaje y trasmitirles lo importante que es que se sumen al euskera. Que las niñas y los niños recien llegados cuenten en su tiempo libre con una familia amiga que hable euskera, ayuda a que entiendan que el euskara es un idioma que también se puede utilizar fuera del ámbito escolar».

*Sortzen diren familia-bikoteen bidez, horien arteko elkar-ezagutza, saretzea eta kohesioa lantzen dira*

Relaciones de ida y vuelta. Es fundamental que las familias recién llegadas sepan cómo se vive aquí, cuáles son las rutinas, las costumbres, los procedimientos a seguir. «Pero, es igual de importante que se reconozca y ponga en valor el origen de las familias migradas. Que tengan la oportunidad de dar a conocer su cultura, su realidad y se tomen en cuenta sus aportaciones».

## Las familias hablan

Maria Jesus Galeano Rugama procede de Nicaragua. Lleva cuatro años y medio en Errenteria. Su hijo Jose Manuel asiste al colegio Tellerialde. «Participo en Familia Laguna porque es un referente para mí. Que una familia autóctona nos ayude nos sirve de mucho, tanto en el ámbito escolar con mi hijo y fuera de él». Galeano afirma que ser parte del programa es una ayuda para relacionarse con padres y madres de otras alumnas y otros alumnos del mismo curso en el que está su hijo, y además, que eso influye en la salud y el bienestar de Jose Manuel: «Me he sentido apoyada por las coordinadoras del programa, y por la familia em-



parejada. Pero aún teniendo una familia específica como pareja, es muy importante la relación que se entabla con otras muchas familias más». Galeano no tiene dudas. Anima a las personas para que se involucren en Familia Laguna. «Es un apoyo para nosotras. Sentimos que no estamos viviendo a ciegas. Esta solidaridad y ese brazo de apoyo es muy de agradecer. Soy madre soltera. Para mí el programa ha sido de mucha ayuda».

Kimberly Lopez es de origen colombiano. En noviembre cumplirá dos años viviendo en Errenteria. «Conocí Familia Laguna por el colegio. Yo llevo casi dos años aquí, pero mis niñas vinieron después, hace un año. Me animé enseguida: me ha servido para conocer cómo se hacen las cosas aquí. He recibido mucho apoyo». Las hijas de López van al centro que tiene Koldo Mitxelena en Markola. «Me siento muy bien. La familia que se emparejó con la mía siempre ha estado pendiente de nosotras. Hemos conocido muchas personas, y en cada salida hemos conocido más. Venimos de otra cultura. Nos gusta conocer la de aquí. Animaría a todas aquellas personas recién llegadas a que se adhieran al programa».

Aitor Macías Sánchez forma parte de una de esas familias que cumplen el rol de acompañante. «La idea me gustó desde un principio. Mi familia también llego de fuera hace muchos años, a Beraun. Hacer este tipo de uniones hace más fácil la vida de mucha gente, y la nuestra se enriquece mucho». Macías ha recalcado que en Familia Laguna las relaciones son de igual a igual, de familia a familia, «y esas relaciones son muy bonitas. Muy enriquecedoras. Las familias que vienen tienen dificultades para integrarse, es normal. Pero con nuestras ganas y nuestra empatía, todo va adelante. Nosotros no somos lo mejor que hay. Tenemos mucho que aprender de las personas migradas. Nuestro hijo también está aprendiendo a valorar todo eso». Hay que romper con la dicotomía que supone hablar de gentes de 'aquí' o de allí'. Eso cree Macías: «Hay que romper con eso. Todos y todas somos de aquí. Son y somos de Errenteria». Cree que conocer nuevas realidades es importante,y que ese conocimiento enriquece a las personas, «y por eso animaría a que la gente sea parte de Familia Laguna».

Para Leire Monfort y su familia está siendo una experiencia muy positiva. Su hijo cursa sus estudios en Tellerialde, y está emparejada con otra familia de ese centro. «Familia Laguna es un programa que no debería existir. Me explico: debería de ser tan normal ayudar a la gente…». Valora sobre todo la relación que han tenido las dos madres, y cree que en esa relación han dado pasos desde la naturalidad. «Piensas que sobre todo tienes que ayudar a las familias que recientemente han llegado a Errenteria. Pero en mi caso, nos hemos dado cuenta que igual las que hemos recibido más ayuda hemos sido nosotros. La familia con la que estamos hace tiempo que lleva viviendo en Errenteria, e igual es por eso que llevamos todo con mucha normalidad».

## Azaroan izango da 'Familia Laguna' programaren ikasturte honetako lehen topaketa.

Errenterian, Familia Laguna programa 2021-22 ikasturtean abiatu zen Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. Programa honen bidez sustatutako harremanek, iritsi berri diren familiak ongi etorriak eta kontuan hartuak sentiaraztea dute xede, baita haur eta helduei komunitate eta eskola egokitzapenean erraztasunak eskaintzea ere, bidean sortu daitezkeen zailtasun edota beharren aurrean akonpainamendua eskainiz (informazioa, tramiteak, saretzea, euskararen ezagutza…).

Aldi berean, sortzen diren familia-bikoteen bidez, auzo eta ikastetxeetako familien arteko elkar-ezagutza, saretzea eta kohesioa lantzen da, udalerri mailan kulturarteko bizikidetza eta arrazakeriaren aurkako pedagogia lantzeko helburuarekin.





## Argazki zaharra

1970ko hamarkadaren hasieran hasi ziren eraikitzen gaur egunean ezagutzen den Agustinak auzoa. Bertan XVI. Mendetik Agustinen komentua zen aurretik —horrek eman zion izena auzoari—, inguruan hainbat etxebizitza txiki zituela. Baina auzoko garapen urbanistikoa hamarkada horren hasieran izan zen. Ondoko irudia 1973koa da, jada auzoaren egitura ia osoa osatua zenekoa. Bertako auzo elkartearen fundazio data 1971eko maiatzaren 29koa da.

## Ba al zenekien...

El %*12,3* de la población de Errenteria ha nacido fuera del estado

El %*12,3* de la población de Errenteria ha nacido fuera del Estado Español, según datos de EUSTAT a 1 de enero de *2023*. Es decir, la población que procede del extranjero asciende a *4.869* personas. La mayoría proceden de América, *1.745* en total. Seguidamente se sitúan los/as procedentes de África *(901)*, Europa *(719)* y Asia-Oceanía *(194)*.



## Txoko bat

Lorategi Geologikoa du herriak. Lartzabal auzoan, Oiartzun ibaiaren eskuineko ertzean dago, Schorndorf parkearen ondoan. Bertan, informazio panelak daude, eta horietan Oarsoaldeko mineralogiari eta bere sorrerari buruzko azalpen grafiko eta praktikoak ikus daitezke. Gainera, natura-baliabide horiek mendeetan izan duten erabilera ere biltzen dute: ongarria, eraikuntza, industria… Gune lasai batean, bada zer ikusi eta ikasi.

Errenteriako EMAKUMEEN ETXEA

# EMAKUMEEN ETXEA AUZOETARA
# LA CASA DE LAS MUJERES A LOS BARRIOS



**BERAUN**

## AZAROAK 6 NOVIEMBRE
Asociación Bienvenido Elkartea

18:00-19:30

**GABIERROTA**

## AZAROAK 13 NOVIEMBRE
Laguntasuna emakume elkartea
Asociación de mujeres Laguntasuna

16:00-17:00

**OLIBET**

## AZAROAK 15 NOVIEMBRE
Asociación Beti Bizkor Elkartea

11:00-12:00

**ALABERGA**

## AZAROAK 20 NOVIEMBRE
Alabergako auzo elkartea
Asociación del barrio de Alaberga

18:00-19:00

**PONTIKA**

## AZAROAK 22 NOVIEMBRE
Lore-toki emakume elkartea
Asociación de mujeres Lore-toki

11:30-12:30

**LAISTER AUZO GEHIAGOTAN**
**PRONTO EN MÁS BARRIOS**

Data eta informazio gehiago:errenteria.eus/emakumeen-etxea
Más información y fechas: errenteria.eus/es/emakumeen-etxea

**EMAKUMEEN ETXEA OBRETAN DAGO, OBREK IRAUTEN DUTEN BITARTEAN**
**MIENTRAS DUREN LAS OBRAS DE EMAKUMEEN ETXEA**

Olibet 6

Astelehen eta ostiraletan · Lunes y viernes: 9:00-13:00
Asteartetik ostegunera · de martes a jueves: 16:00-20:00